

ENRIQUE ZUBIRI «Manezaundi»

El hombre y el escritor

J a u n a k : elkarrekin daramazkigun urte auetan lenbiziko aldiz Naparroko Jauregi Nagusian Euskaltzaindia bildurik ikustean, egia esan, atsegin artu du nere biotzak. Miletan bildu izan gera Donostian; Bilbo eta Bayonan ere bai, aldi zonbaitez. Nere etxean bezala nintzan anaien etxean; baño, neretako, Iruña falta! Gaur gure etxean zaituztegu. Ongi etorri danori!

Ez dut aipatu nahi Naparroak bere eskuararekin duen zorra. Itzak baño, egite onak agertze obe izango delakoan nago. Eta eginbide on batekin ordaindu nahi ginuke gure uts guzien zorra. Ba dakit ortako lan asko egin behar izango dugula. Al duguna egiteko prest gaude.

Naparroko eskual idazle baten lana aipatu nahi nuke gaur. Iñoiz ere entzun ez dutenak entzun eta jakin dezaten; beren gogoko eskuara etzutelakotz bazterturik daukatenak, irakur dezaten; eta danok, bere izen on eta jatorrak merezi duen oroipena egin dezaigun.

MANEZAUNDI'REN MINTZAIRA

Mintzaira errikoia.—Ikastola ona izan zuen Manezaundik bere erriko gizonena. Nik uste, txapela kendu eta buru-hats jarriko zela auen aurrean. Irían bizi zen, ariek ez bezala bezti; eskol aundia ba zuen, bere izena aipatua. Erritarren aurrean jaun aundi bezala, ohoretan agertzeko behar zen guzia ba zuen. Nahi izate aski. Baño, etzen kasko arin orietakoa. Etzitzakon alakorik buruan pasatu ere. Ona bere itzak:

«Aitortzen dut nik ere denen arabera ba dituala nere hutsak, eta nere herriko baserritarren ondoan, mintzaiari doazkon trebetasunetan anitz ikastekotan nizala; bai eta ere eien artean yakintsun hoberenarekin baino geiago argitzen dutala, baldin iluntasun zombait izaten badut...»

Erriko eskuara ikastea da beretako helburu guzia. «Eskuara *trebe, garbi* eta *gurbil* ikas nahi dutenendako» bide bat ikusten du bakarrik: herri eskualdun batera urtero joan eta ahal bezain epe luzea an ematea. Liburutako ikasgai eta erakusleen ondotik denek ori behar omen lukete egin... (Ba dira beren aurrekin hori egiten sayatu direnak. Bizpairu ilabete egin dituzte aur oiek baserrian; baserritarrak erdaraz ikasi baño, ez eskuararik besteak).

Enrike Ierro auetan bere jokabidez mintzo da; ala ikasia zuen eskuara. «*Niahuri gertatzen zautana erraiten dauzuet...*» Berak, bai ikasi zuen eskuara; eta nola!

Jokabide ontan aski agertzen du Zubirik bere buru argia. Bizi guzia ikasle. Nor eta, iriko erakusle ospetsua bere erritar eskola gabekoen agotik egunoro gauza berrien ikasten. Eta ez da ahalge; lotsarik gabe du erraiten.

Berezko argi ori du bizi guzian gidari. Ez du herriko eskuara, errikoa delakotz onartzen, ezkilak edo iturriko ura artu laizken bezala. Ba daki zer ar eta zer utz. Ez da bakarrik itzen gora-bera:

«Anitzek uste dute eskuaraz huntsa idazteko aski dutela iztegiatako itz guziak yakin gogoz eta apuñatik. Eta ez da batere hala:

«Ene ustez itzen ikastea bezain beharrezkoa da aditza eta berboa, egingura, eta itzuliak eskualdunki ibiltzea; zeren eta itz batek itzaldi batean erran nahi duena, beste batean, bere lekuz kanpo da, funtserik gabekoa».

Zer du ikusten Zubirik erriko eskuaran?

Ba daki eskuaran agoz ago etorritako aberastasuna dugula: «gure elea mendietako ur-xirripa kotsu gabeko iturrietan edan dugu, batere yautsi gabe ur-aundi edo ibaietarar, ok ardurenik garbitasuna galtzen dutelakotz heien ganat doan zikinkeriaz nahastekaturik». (Zer lerro politak!).

Mirakuluzko garbitasun hori —galdetuko dio bere buruari—, nundik heldu zauku Miresgarrizko emaitza hori norenganik dugu?

Eta erantzuna: *Menditarrerri esker.*

Itz batez adierazteko, erriko eskuara erabiltzean ba daki iturritako ur goxoaren antzera, eskuara garbian ari déla.

Luzaideko eskuara.

Gizon ikasia da eta ba du beste errazoin bat errikoa izateko. Ezagutzen du eskuaraz idatzitako lenbiziko liburua, «Linguae Vasconum Primitiae», eta gauz batek arritu zuen gizona; etzezaken sinets. Ona bere itzak:

«ikustea, onartzea miresturik, Garazin orai mintzatzen den eskuara Decheparen denborakoa dela salbu hitz bakar batzu».

«Lau eun urte iraganik eskuara ez da aldatu, baztertu edo bihurtu bere bidetik... Garazi aldean».

Arrigarri da. Ikusi baizik ezta gure inguruko izkuntzak lau ehun urtez egin dituzten aldaketak; eta eskuara, ordukoa.

Bere denborako luzaidarren mintzaira idaztea besterik egin ez balu ere, zor aundia izango zuen Manezaundirekin Eskualerriak. Gogoan izan eskuarazko liburu zaharrenaren mintzaira déla. Etorriko da garaia, biak elkarren ondoan direla, lau ehun urteko izkuntzaren aldaketak billa ibiliko girena. Biak errikoiak bai dira!

Nere ustez au da luzaideko idazlearen merezimendurik aundiena. Eta beste batzuk ba dugu zer ikasia. Zoin balio gutxi eman izan diogu erri-izkuntzari! Tolosako eskuarari begira jarri ditugu frangotan. Mesede aula eskuarari egin dioguna! Berena galdu —txarra bai zen!—; eta besterik ez ikasi. Gero, denak erdaldun.

Eta zer biurkeri ezin iretsiak, berexten ez diren ari pilota nahasiak bezala, gure artean idazten diren zombait gauza. Bein eskutan artzen dituenari bere biziko eskuararen gogoia kantzeko modukoak!

Ez da oraiko pekatua:

«Buru-austeak izan ditut zonbait aldiz idazki batean itzaldi bat ezin arras ulertuz, bere itzuliaren ilundura (xintaxis) ezin argitaratuz, xuxenki yakiteko zer erran nahi ote zuen...»

Ikastolak ere or ditugu. Lan edena an egiten dena! Bana bere arrixkuak ba ditu. Ez ote gera beren aita ama eskualdunekin mintzatzeko balio ez duen eskuara aurreri erakusten ari, batzutan? Zer diegu, gurasoeri ere eskuaraz erakutsi nahi aurren bidez? Edo ez dakitela adierazi nahi? Iztegian berrizale izatea baño elitzake obe erdal kutsuko joskera berrien berrizale izatea? Manezaundi'ren denboran ikastolarik etzen; baño berrizale porrokatuak bai. Bera ere berrizale da, baño, «*aditza eta herboa, egindura* (construcción), *eta itzuliak* (giro) *eskualdunki* ibiltzearen» aldekoa.

Artistaren begia.

Gurea ez bezain zorrotza da artisten gauzak ikusteko modua. Eta Zubiri margolari zen leenik... ogibidearen aldetik. Ez gizonaren aldetik. Nere ustez iturri beretik sortutako ur-xirripak baizik etziren bere margol eta idazlanak.

Dena dela, elkarren eskutik dijoaz biak, elkar argituz bezala. Ikusi, esate baterako, «Azpilikueta» idazten dueña eta bere margol oiala; ezin da asmatu kolorezkotik atera zuen idatzia; edo idazkitik zuen aurpegi zorrotz orren argia.

Luzaideko festa, dantzari eta karakotxak aipatzen dituelarik xehetasun guziaz ez ditu aski. Ez da munduan alakorik. Luzaidar fina!!

Eta, jalona, mendi eta oihan, bere eskutan itxura artzen zuten pentze zabalak aipatzen zituelarik, menditarra zen eta etzuen gordetzen:

«Oren erdi bat Iruñetik goiti yuanezkioz, hasten zaizkigu ikusmenak edertzen, mendiak oiantzen, etxeak xuritzen, koloreak bizitzen, garbitasuna agertzen».

Au da bere biotzean gordetzen zuen mendi aldearen iduria.

Auñamendiko eskuara ikusten du berak batasunerako oiñarri bezala artze-koa. Ipar aldera naiz egoaldera edatuena bai zen orduan.

Ba ditu bere uts eta akatsak. Ez da arritzekoa urte guzia Iruñen, eskuararik entzuteko biderik gabe bizi zen gizonarekin. Baño, Manezaundiren dugun uts aundiena suak erretako bere lan guziena da. Ain gutxi da gelditu dakiguna!

Eta gaurkotz naiko izango da. Eskualtzaletasuna aztertuko duen lana beste aldiren batez egingo dugu Jainkoa lagun.



He tratado de compendiar en la primera parte de mi intervención los valores más genuinos de la obra literaria de Enrique Zubiri. Es decir, me he referido a Manezaundi. Ahora quiero hablar del hombre; del hijo del Secretario de Luzaide. Simplemente, de Enrique.

Y me van a permitir que no siga el procedimiento habitual en estos casos. Rehuiré igualmente el panegírico y el ditirambo, para centrar la atención en el aspecto negativo de su vida. No trato de esbozar su caricatura; sino de per-

filar la figura incomprendida del artista, a partir de sus sombras, tal como él lo hubiera hecho si nos llega a hablar de su vida.

Hay razones para proceder de este modo:

- 1.^a Por tratarse de una característica suya muy peculiar.
- 2.^a Pudo ser la causa de muchas incomprensiones.
- 3.^a y fundamental: porque el estudio sereno del artista en toda su dimensión humana no anula ni empece su obra, sino que la revitaliza y completa.

CARÁCTER

Sus coetáneo no duda en calificarlo de raro. Temperamento difícil; más bien brusco y extraño.

Otros son más comprensivos. Voy a transcribir dos notas que me llegan a través de la correspondencia mantenida durante los últimos días. La carta está fechada el 11 de noviembre pasado, y procede de las inmediaciones de Pau (Francia). Dice así:

«Recibí la revista PRINCIPE DE VIANA, etc. que mucho agradezco... ¡Quién se acordaba del *pobre* Zubiri! Primera nota, diríamos, de conmiseración. Trae luego un recuerdo personal, una anécdota que retrata al artista; y añade:

«*Tenía unas cosas raras, como de artista*». Exactamente. Pero no es cosa de correr demasiado. Vayamos por partes.

No soy, precisamente, un sicólogo pero creo entrever el carácter introvertido de Enrique: reconcentrado, poco comunicativo (salvo excepciones), desconcertante en sus reacciones, incisivo. Se desenvuelve en un círculo muy reducido de amistades.

Esto, en principio, no es bueno ni malo. Ha quedado desfasada aquella escala de valores, por la que el extravertido, con su tónica de movilidad y empuje era considerado como el hombre ideal; en tanto que al introvertido, a pesar de sus elucubraciones más geniales, había que soportar. Si no malo, se tenía por menos bueno. Son dos formas diferentes de ser, y cada una cuenta con sus propios riesgos. Al hombre hay que aceptarlo como es.

CONTRATIEMPOS

Las tendencias naturales de cada uno están condicionadas, en último término, al ambiente, lo mismo que a circunstancias históricas y personales, capaces de fogear las reacciones más extremas; o de retraerlas a su justo medio. Enrique fue, en este sentido, víctima de su propio destino. Le salían las cosas mal, que dirían sus amigos.

Nace fuera de casa. San Juan Pie de Puerto no supone ningún destierro para un valcarlino. Pero el dato vale como exponente de una realidad ulterior, que es la constante de su vida.

Sentimentalmente no tuvo suerte. Larga y penosa enfermedad de la mujer en quien cifrara sus ilusiones; y por fin la tumba. Los familiares se hicieron cargo de la correspondencia de esta época de su vida, que él conservó hasta la muerte. Todo ha desaparecido.

Es posible que el descalabro que pudo suponer el capítulo de sus aspiraciones truncadas se hiciera sentir con fuerza a lo largo de su existencia.

Tampoco le sonrió demasiado el éxito económico. Vivió siempre muy parcamente. Gran parte de su producción artística pasó a los familiares. Tuvo diferencias económicas, incluso con trabajos de encargo.

La consecuencia más directa de su fracaso sentimental fueron las pensiones. Cambió muchas. Ninguna colmaba plenamente sus deseos y se marchaba.

Finalmente, la destrucción de sus escritos y notas durante la guerra tuvo que suponer un rudo golpe para su fina sensibilidad de artista.

No citamos estos datos a título de inventario. Sabemos que las circunstancias no son el hombre, pero lo condicionan; y Enrique fue su víctima. De ahí el hondo significado de la expresión «*¿quién se acordaba del pobre Zubiri!*», que le dedican sus paisanos.

EL ARTISTA

Supuestas estas premisas es como cabe adentrarse un poco por los extraños vericuetos del alma del artista Zubiri. Su arte respondía a una exigencia interior de darse; y la motivación más profunda radicaba en su propia insatisfacción vital. En este sentido, pluma y pincel son espuelas de guerrero que quiere evadirse de sí mismo a caballo de las sensaciones externas; lo bello a través del sueño, de la poesía y del color.

Sus reacciones son desconcertantes: tienen que serlo. No lo puede remediar. Así:

Insoportable, lacónico y brusco cuando se siente en trance de plasmar esa galopada del espíritu, que llamamos inspiración. Saben de esto sus mejores amigos.

Comunicativo en la contemplación del motivo artístico que acaba de captar y trata que otros participen. Era frecuente que detuviera al transeúnte o llamara a cualquiera que se encontrara en casa, para formularles indistintamente la misma pregunta: «*¡a ver cuántos tonos verdes distingues en este paisaje!*». Por eso puntualizaba, a veces, al anunciar su visita: «reservadme la habitación de siempre; la de las preciosas vistas a Ondarrola».

Sus artículos descriptivos son de antología.

Respetuoso, casi *reverencial* con los valores que descubre en los hombres de su pueblo. Reconoce en ellos el soplo fabuloso de una tradición oral, y trata de enriquecerse. Dice que son sus profesores y auténticos académicos de la Lengua. Les rinde el culto de su sincera admiración.

Únicamente dentro de una panorámica de conjunto y teniendo idea de la compleja, más bien abigarrada gama de resonancias que repercuten en el alma, puede descifrarse la frase de mi comunicante: «*...y así tenía unas cosas raras como de artista*».

De todos modos, no quisiera que nadie pudiera sacar la impresión de que fuera, algo así como un verduguillo o un matón. Lo grande es que era *tímido*. Es significativa la anécdota de la araña. Era una noche en que no estaba el horno para bollos, en expresión familiar. Acaba de subir a su habitación, cuando le oyen gritar desafortadamente.

Sube la hija de casa y la despide desde la escalera:

—¡Faustina! ¡Que venga Faustina, a matar una araña!

Y tuvo que subir la dueña y, por supuesto, matarle la araña.

Tampoco sus reacciones más bruscas y sus clásicas antipatías eran profundas. Era de buen corazón. Pero tenía que luchar mucho para sobreponerse a las estridencias de carácter.

Durante algún tiempo tuvo que convivir con un soldado ribero, que se hospedaba en la misma casa. Incidió en el terreno vedado de cualquier acotado interior y no lo podía soportar.

Una noche, cenaba el soldado cuando él llegó. No tuvo mejor idea que sentársele de espaldas y comenzar a releer la prensa.

El muchacho no se dio por aludido, y terminada la cena se despidió como de costumbre para retirarse a descansar.

—¿Cómo? ¿Se nos ha ido sin más...

—¡Pues claro! ¿Cómo no se va a marchar después de lo que le has hecho? ¿Te crees que no se da cuenta? También es persona.

—Lo he hecho sin querer.

A la mañana siguiente esperó al muchacho y le dijo estas palabras:

—Yo no soy rico; pero toma cinco pesetas para que meriendes en Pedro Mary. Valen por cinco duros del americano X.

Sobre todo, conviene destacar que por encima del hombre concreto está su obra: sus cuadros y sus escritos. Ese puñado de artículos que escaparon de las llamas, y nos admiran por su naturalidad. Sería interesante ir anotando la presencia gozosa de nuevas páginas.

En cuanto a los lienzos, me remito a los críticos de arte. De todos modos, no sería difícil organizar en Pamplona una exposición colectiva de Zubiri. Creo que merecería la pena.

A Pamplona dedicó él varios de sus artículos más simpáticos y entrañables, y ella tiene ahora la oportunidad de mostrarse agradecida. Pamplona tiene la palabra.